



Euskal Herriko Pertsona
Gorren Familien Elkarteen
Federakundea

1994tik Euskadiko pertsona gorren familiekin



Edukiak:

→ Familiak

FEVAPAS datuetan

2. or.

Hitzaldia 2025

3. or.

→ Haurrak - Gazteak

Sozializazio-jarduerak

4. or.

→ Elkarte federatuak

ARANSKI

6. or.

ULERTUZ

6. or.

ASPASOR

7. or.

→ Boluntarioak

BA AL ZENEKIEN...?

8. or.

8. or.



Aranski

Gipuzkoa

aranski@aranski.org

www.aranski.org

943275055 / 655291841



Bizkaia

ulertuz@ulertuz.org

www.ulertuz.org

944440125 / 648922539



aspasor

Araba / Álava

info@aspasor.org

www.aspasor.org

945287392 / 605710026

FEVAPAS datuetan. Koordinazioa

484 FAMILIA elkartu-federatu / **541** pertsona gor / **1.376** zuzeneko onuradun.

FEVAPASEk, **aurten ere**, elkarte federatuak **KOORDINATU** ditu, familiei arreta emateko eta laguntzeko egiten duten baterako elkarlanean.

1.365 kudeaketa indibidual baino gehiago egin dira.

Batez beste **30** adingabek eta gaztek hartu dute parte sozializazio-jardueretan.

125 pertsonak parte hartu dute gurasoen gogoeta-taldeetan/ eskoletan.

30 pertsona baino gehiago elkartu dira FEVAPASEk antolatutako online hitzaldian.

100 pertsona baino gehiago artatu dituzte psikologiako eta osasun mentaleko profesionalak.

50 pertsona izan dira zeinu-hizkuntzako ikastaro informaletan.



200 pertsona baino gehiago bildu dira elkarte federatuek antolatutako hitzaldi, jardunaldi eta abarretan.

Gizarte-laneko, osasuneko, logopediako, hezkuntzako, arreta goiztiarreko, administrazioko, komunikazioko, interpretazioko eta beste arlo batzuetako **50** profesional izan dira.



Hitzaldia 2025

→ Azaroaren 12an, FEVAPASEk “Hurbiltzen gaituen teknologia: **IA eta Auracast**.” Hobeto entzun, gehiago konektatu” online hitzaldia antolatu zuen. RV-ALFAko Myriam González Maycas audiologoa eta logopedak eman zuen hitzaldia.

Saioan, aztertu zen adimen artifizialaren eta Auracast teknologia berriaren aurrerapenak nola eraldatzen ari diren entzumen-galera duten pertsonen komunikatzeko modua eta ingurunean aktiboki parte hartzeko modua. Myriam Gonzalezek berrikuntza horien aplikazio praktikoak azaldu zituen, eta espazio publikoetan, ekitaldietan eta eguneroko inguruneetan entzumenaren eskuragarritasuna hobetzeko duten ahalmena nabarmendu zuen.

Hitzaldiak interes handia piztu zuen konektatu ziren pertsonen artean, eta zuzen-zuzenean jakin ahal izan zuten teknologia nola laguntzen ari den komunikazio-oztopoak hausten eta inklusioa sustatzen.

FEVAPASEk pertsona guztien parte-hartzea eta hizlariaren ekarpen baliotsua eskertu nahi ditu, eta pertsona gorren eta entzumen-galera dutenen aukera-berdintasuna sustatzen duen guztia zabaltzeko konpromisoa berretsi nahi du.

HITZALDIA / **CHARLA**
Familiak FEVAPAS Familias

HURBILTZEN GAITUEN TEKNOLOGIA
IA eta Auracast
TECNOLOGÍA QUE NOS ACERCA

HOBETO ENTZUN
ESCUCHAR MEJOR
GEHIGAGO KONEKTATU
CONECTAR MÁS

AZAR OAK **12** **NOVIE MBRE**
asteazkena / miércoles
18 - 19:30

MYRIAM GONZÁLEZ MAYCAS
RV-ALFA Audiologia eta Logopedia Zentroko AUDIOLOGOA
AUDIOLOGA del Centro de audiolgia y logopedia RV-ALFA

IZENA EMATEA
INSCRIPCIONES

A través de la plataforma ZOOM plataformaen bidez
ZH / ES
Azpitituluak / Subtítulos

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Haurrak eta gazteak

15 larunbata, 31, larunbata eta 20 larunbata

Martxoan JAUIZIAK ETA LANKIDETZA

FEVAPASeko 30 adingabe eta gazte Basauriko (Bizkaia) FunPlay Park aretoan eta inguruetan elkartu ziren berriro. Kontatzeko eta partekatzeko kontu ugari. Guztiak elkartzeko eta gozatzeko gogoz.



Maiatzean HISTORIAURRERA BIDAIA

FEVAPASeko 31 neska-mutilek Zestoako (Gipuzkoa) EkainBerri historiaurreko kobazuloa bisitatu zuten. Gure arbasoei buruzko tailerretan parte hartu zuten eta paseoaz, bazkariaz eta jarduera kooperatiboez gozatu zuten. Barre artean, eta gogo biziz, zera ondorioztatu zuten: **errepikatu nahi dugu!**





Irailean **SANTA KATALINA, LORATEGIA BAINO GEHIAGO**

20 adingabe eta gazte Pobesen (Araba) bildu ziren jolasteko eta elkarbizitza egiteko. Bazkalostean, Santa Katalinako lorategi botaniko ederra bisitatu zuten, gidari eta interpretearekin. Bidezidor irisgarriei esker, eta eguraldi ona tarteko, leku historiko, misterioitsu eta oso eder horretaz gozatu zuten.



Horrez gain, irteera horiei esker, elkartu ahal izan gara, une bereziak partekatu ahal izan ditugu eta gure arteko loturak sendotu. elrteerak, berez, elkar hobeto ezagutzeko, lasai hitz egiteko, bizitzako esperientziak trukatzeko, elkarrengandik ikasteko eta, batik bat, alaitasunez, konexio handiz eta konpainia onez betetako esperientzia zoragarri horretaz elkarrekin gozatzeko espazioak dira.

Aransgi

Uda honetan zehar, AransGik haurrentzako sozializazio-jarduerak antolatu ditu zenbait ingurunetan. Ekainean lau egun eman genituen Zuhatza uhartean (Araba), eta uztaillean topaketak antolatu ziren egoitzan bertan zein inguruko igerilekuetan, baita paseoak hirian zehar ere. Urrian, berriz, Urbasako kanpinera asteburu-pasa joango ginen 12 urtetik gorako haurrekin.



Aspasor

ARGAZKIGINTZA-TAILERRA

2025ean, ASPASOReko 14 eta 29 urte bitarteko bederatziz gazte argazkigintza-ikastaro batean parte hartu zuten, ASPASOR 2026 egutegia egiteko helburuarekin.



Ekimena sortu zen argazkigintza pertsona gorrek eta entzuten duten pertsonak berdin erabil dezaketelarik komunikazio modua den ideiatik.

Mugikorretako kamerekin lan egiteaz gain, parte-hartzaileek paperezko argazkigintza ezagutu zuten, askorentzat teknika berria eta oso interesgarria.

Orain gogo biziz espero dute ikasitakoa egutegian islatuta ikustea —egutegia ahal den neurrian banatuko da—.

Azken emaitzaz haratago, jarduerak prestakuntza-helburua bete zuen eta bizikidetzagiro ona sustatu zuen.



Ulertuz

HALLOWEEN JAIA

Joan den urriaren 25ean ULERTUZek bere topaketarik beldurgarriena egin zuen. Halloween festa ospatu genuen! Urtero moduan, jokoak, eskulanak eta ginkanak antolatu ziren, "Addams familiak egingo lukeen modura". Ekitaldian txiki asko bildu ziren, eta ikaragarri gozatu zuten jarduerekin zein izuekin, baita, jakina, jai honetan hain ohikoa den litxarrekiarekin.

Boluntario gisa, La Caixa Gizarte Ekintzako profesionalen talde baten laguntza izan genuen. Profesional horiek maitasun handiz babestu eta animatu zituzten haurrak. Eskerrik asko



Boluntarioak

FEVAPASek eskerrak eman nahi dizkie, aurtun ere, aisialdiko begirale boluntarioei federazioko txikiekin eta gazteekin eskuzabaltasunez lan egiteagatik eta laguntzeagatik.

Koordinaziorako online bilerei eta irteera-egunetan eskainitako laguntzeari esker, irteera-egunek hezkuntza-zentzu nabarmena izan dute eta finkatutako helburuak bete ahal izan dira.

Urtea osatzeko, abenduan, prestakuntza txiki bat antolatu zen: "Besteak zaintzea eta nork bere burua zaintzea. Lortu beharreko oreka". Zaintetek eragin dezaketen neke emozionalaz eta zama mentalaz hitz egin zen, baita nork bere burua zaintzearen premiaz ere, batik bat ongizate pertsonala sendotze aldera eta beste pertsona batzuei laguntzeko gaitasuna indartze aldera.



Ba al zenekien...?



FEVAPAS 1994tik ari da lanean

- Pertsona gorren eta haien senideen eskubideak defendatzen eta sustatzen.
- Aukera-berdintasuna eta erabateko parte-hartze soziala bermatuko duten ekintzak bultzatzen.

Gehiago jakin nahi al duzu?

Joan erreferentziazko zure elkartera informatzeko eta parte hartzeko.

ARANSKI Gipuzkoan
ASPASOR Araban
ULERTUZ en Bizkaian

Hezkuntza
Osasuna
Hezkuntza-aisialdia
Ongizatea
Gazteria
Familia
Gizarte-zerbitzuak
Justizia
Desgaitasuna
Bizitza independentea